


# María Olga Coronado eta Francisca Carmen Aguilar Mejía

*Maya Ajchimol* Garapen Osorako Elkarte eta San Marcoseko *Mam* ontseiluko kideak



Gure baloreak eta ezagutzak aldarrikatzeko, arbaso eta autoritateekin batera egiten dugu lan. Urteetan zehar, maya herriek izugarrizko ezagutza eta ondarea utzi dute, gaur egun, guk mantentzeko eta sendotzeko beharra duguna. Horiek gabe, bizitzak ez luke zentzurik izango. Herri indigenek erlijio propio eta aparta dugu. Maya herriaren kasuan, gure fedea elkarte eta sentipenetan oinarritzen da batik bat, guretzat sakratua den ororekin bat egitearekin. Gure espiritualtasunarekin bat egitean, zeharo indartuta sentitzen gara, indar hori oraindik ere gure baitan dugula antzematen dugu.

Guatemalan, eta bertan bizi diren herri indigenen artean ere, biztanleriaren gehiengoa maya gara. Ajchimol erakundearen lanaren nondik norakoak gure herriek eta komunitateek bizi duten testuingurua aztertzea eta ikertzea da: marjinazioa, diskriminazioa, lurraldearen bidegabeko jabetzeak, gurea denaren bereganatzeak... Agintari eta taldeburu berriak ere sustatu eta gaitzen ditugu, herri lan hori sendotuz joan dadin. Bizi duten egoeraz ohartu daitezten. Beraz, ez gara arazo edota lan ildo konkretu batean finkatzen soilik. Tokian-tokiko zein nazio mailako arazoak lantzen ditugu, eta jendea laguntza eta aholku eske gerturatzen da gugana. Horretarako, hezitzaileak, politikariak edota sailburuak ditugu elkartearen lanean. Norberak bere sentipen eta jokaera propioak ditu, bere gaitasun eta trebeziekin, eta horrek asko aberasten gaitu erakunde gisa lanean jarraitu ahal izateko. Lan taldea da, gure herrialdeak bizi duen errealitate ezberdinetara egokituta, hain zuzen.




Parekotasuna eta ekitatea izan dira Ajchmol erakundearen oinarritzko helburuak, emakumeon baloreak zaintzea. Betiere gizonezkoak baztertu gabe, gure nahia bizitza kolektiboa eta harmoniatsua baita. Hala utzi izan zigutelako gure arbasoek, gure ondarea da. Gaur egun, ezagutza, jokaera eta bizimodu horiek sustatzea eta aplikatzea da gure konpromisorik handiena, behingoz gu geu izatea, alegia. Jakituria eta ezagutza horiei esker gero eta gehiago hasten ari gara herri eta pertsona gisa, gure ondarea bilakatuko dena denboran zehar.

Guatemala txirotasun larria, marjinazio handia eta heziketa kalitate baxua dituen herrialdea dugu. Guk, erakunde gisa, ezin dezakegu hori egun batetik bestera aldatu, baina bai hartu dezakegula egoera apurka-apurka hobetzen joateko konpromisoa. Gure izate horretan pentsatu behar dugu. Non dugu izate hori? Zertarako nago ni mundu honetan? Zer da lortu nahi dudana? Zein da nire norakoa? Galdera hauen inguruan hausnartzea garrantzitsua da zeregin honetan hartu nahi dugun bidea argi izateko, eta gure gazteria ere bideratu ahal izateko antzeko ekimenetan. Aitona-amonek utzi zizkiguten baloreak erabat ahaztuta ditugu gaur egun. Orduan, Acjhmol-ekin dugun xedea, ezkutuan utzi ditugun ezagutza eta balore horiek berreskuratzea eta sustatzea da, “hemen gaude”, “bizirik gaude” ozen eta garbi oihukatzea. Hori da erakundearen izaera eta jokatzeko konpromisoa.

Gazteriaren kontzientziazioarekin hasi gara, izan ere, hauek ernatu ezean, ez dugu inolako aldaketarik lortuko. Emakume gisa, biziaren adibide gisa alegia, izaki guztiz ukaezina naiz, eta inork ere ezin nau manipulatu, bereizi edota baztertu. Maya kulturaren kasuan, esaterako, gizakia sakratua da, bizitza bera den bezala. Lurrean dugun oro, elikatze eta edateko baliogarria dena, guzti horrek bizitza propioa du gure herrien sinismenen arabera. Jakituria eta ikuspuntu hori jaso dut nik jada, asko indartu nauena aurrera egiteko eta nire seme-alabekin partekatu nahi dudana, haiek ere senti dezaten. Lehenik ni neu, ondoren nire seme-alabek eta, azkenik, gizarte osoak. Hortik hasi behar gara eta, hori bera ere da plazaratu nahi dugun galdera.

Aspaldiko autoritateekin batera burutzen ari gara lan guzti hori. Adineko pertsonak dira, esperientzia handikoak, kargu eta laguntza izugarria eskaini izan diotenak komunitateari. Hauek dituzten arazoak lehen eskutik ezagutzen dituzte, eta baita behar dituzten konponbideak ere. “Hitz egin dezagun, eztabaida dezagun, eta irtenbide bat aurkituko dugu. Ebazpena gure kabuz aurkitzeko gai bagara, ez dugu inolako hirugarren pertsonen beharrik izango gure arazoetan murgiltzeko. Beraz, bilatu dezagun konponbiderik onena”. Hori da haien ikuspuntua. Komunitateetan errespetu eta miresmen handia duten pertsonak dira. Gure bidea argitzen jarraitzen dute oraindik ere eta, lurraren defentsaren borrokaren kasuan, lidergoa hartu dute.

Lurraldeaz hitz egitean, kontuan hartu beharra dago ez garela soilik lurraz mintzatzen ari. Lurra hitzaren baitan ura, airea, elikagaiak, gure janzkera, gure izaerak, komunitateetan betidanik erabili izan ditugun botika naturalak, osasuna bera... ditugu. Guzti hauek bizi-kontzeptu oso bat osatzen dute, bata bestearen beharra dute, eta ezin ditugu behar bezala ulertu banaturik. Hainbeste desiratzen dugun bizitza hori, gure esku dugu, gure komunitateen eskuetan dago. Hitza eta komunikazioari esker, arazo asko eta asko konpondu izan dira bertan izan ere. Maya kulturaren kasuan, erabat ezinezkoa da jazotako balore eta oinarri horiek banatzea, bata bestearen beharra baitu ulertu eta aurrera egin ahal izateko. Xchmol delako kontzeptua dugu, ilekorda baten antzera irudikatu



daitekeena, non hauek bat egiten duten izaera eta nortasun indartsu bat osatuz, gure bizimodu propioa sendotuz. Hori da, berez, garrantzitsuena guretzat: oreka osoan bizitzeko aukera izatea, espetxe edota zigorretatik aldenduz.

San Marcoseko Mam kontseiluak tribunaletara heldu izan diren arazo asko konpondu izan ditu. Auzitegietan irtenbiderik topatu ezean, Mam Kontseiluarengana jo eta mahai-ingurua egiten da: “jesarri eta hitz egin dezagun”. Denon arteko hausnarketa bideratzen da, eztabaidatu eta irtenbiderik bidezkoena bilatzen da, guztion arteko akordioa lortu arte. Inor ez da haserretzen, inor ez baita galtzaile suertatzen. Bestalde, kanpoko kulturaren kasuan, ostikoka amaitzen dira askotan epaiak eta, orokorrean, diru gehien duena suertatzen da irabazle eta, ondorioz, errugabeak diren pertsona asko errudun bilakatzen dira egun batetik bestera, eroskeriak direla eta.


Estatuak ez du sekula hori onartuko, noski. Konstituzioaren erreforma eman zenean, hauteskunde legea gaurkotu zuena, Estatuaren parte diren erakundeek ez zuten ulertzen zein zen gure autoritate propioek zuten helburua. Izan ere, Guatemalako Konstituzio politikoa osatzen duten legeek ez dute inolako amankomuneko bizitzaren aldeko defentsa sustatzen. Gainera, oro har, instituzio hauen partetik erasoak bideratu egiten dira maiz, autoritateek haien lana oztopatu edota baztertu egiten dutelakoan. Guzti hau gainditu beharreko borroka baten parte da, gure ustez.

Lidergo hauek hezten eta sustatzen jarraitzeko, guztiz beharrezkoa dugu gure aitona-amonon babesera bueltatzea, gure antzinako komunitateetara alegia, eta haiek zuten naturarekiko harreman harmoniatsu horrekin bat egitea berriro ere. Soilik horrela izan dezakegu benetako bakea, lasaitasuna eta bizitza orekatu bat, ondoren gainontzekoei behar bezala eskaintzeko. Hau posible egiteko, guztiz beharrezkoa suertatzen da gazteriaren heziketa. Haiek izango baitira aurrera pausua eman eta erantzukizuna hartu behar izango dutenak gure nagusiak desagertzen joango direnean. Emakume, gazte, autoritate eta espiritualtasun gidarien heziketak sendotzearen premia dugu. Gure herriaren sustraiak eta mundu ikuskera indartu behar ditugu, hauek direlako gure ezagutza eta jakituriaren oinarri nagusia.

Gaur egun, Guatemalako heziketa sistemak, ez ditu batere beste kultura, identitate, espiritualtasun edota mundu ikuskerarik lantzen. Izan ere, ez ditu herri indigenen berezko ondaretzat hartzen, baizik eta oztopo balira bezala antzematen ditu hain zuzen, jendearentzako kaltegarri den zerbait bezala, alegia. Heziketa eredu hau Estatuaren nahietara soilik egokituta dago, eta sekula ez ditu aintzat hartuko herrien edota bizitzaren zorientasuna.

### **Lurraldearen defentsa**

Guk, emakumeok, gorputz sakratua dugu, askotan behar bezala baloratu egiten ez dena, tamalez. Gure herrialdean feminizidio tasa izugarria dugu, neska gazte asko bortxatuak izaten dira eta, ondorioz, haurdun gelditzen dira. Hori, emakumeon gorputzen aurkako eraso larria da, bizitza beraren aurkako eraso da. Gainera, Guatemalako herriak ez du inolako ahaleginik egin emakumeon bizitzen alde eta, are gehiago, talde edo elite dominante horien alde baino ez du egiten, ez du gudan inolako arretarik jartzen.



Emakume gisa, gure seme-alabak laguntzearen alde egiten ari gara uneoro. Gurekin hazi behar dira lehendabizi, ondoren, maila nagusiagoetara igaro ahal izateko. Hori dela eta, komunitateetako heziketa prozesuetan ere esku hartzen dugu eta honako gaiak lantzen ditugu. Gizon zein emakume, gure buruak zaindu behar ditugu. Herri indigena gisa ez dugu bereizketa horretan sinisten, gizon eta emakumeak hazi eta heldu amankomunean egin behar dute, elkarrekin batera. Hortaz, batak bestearen beharra izango du beti. Guzti hau oso argi dugu guk erakunde gisa lurra eta bizitzaren defentsan aritzeko, eta honen inguruan hazi egin gara ere.


Gure odola eman behar izan dugu maiz. Emakumeak erail dituzte lurraldearen defentsan aritzeagatik, gizonak ibaia edota ura defendatzen saiatzeagatik. Urik gabe gu ez gara deus. Urrea izan dezakegu bai, baina urik gabe ezin gara bizi. Horregatik diogu herri indigenak garela eta bizitza defendatzen dugula, baina bizitza bere osotasunean. Hori da Ajchmol eta Mam Kontseiluek San Markos eskualdeko kostaldean, San Pablo udalerrian hain zuzen, egiten ari diren lan ildo nagusietako bat bizitzaren defentsan eta proiektu hidroelektrikoen aurka.


Heldu diren enpresak tokian-tokiko ikerketak egin dituztela eta aho betez leku horietan inor ez dela bizi diote. Baina hau gezur hutsa da, izan ere, jendea hiltzen ari dira egun argiz. Hala ere, antolakuntzak indar handia izan du beti, anai-arrebek bizia defendatu izan dute beti eta ezin izan dituzte enpresak sartu momentuz. Ahots altxatze hauen ondorioz, anai-arreba asko espetxeratuak izan dira, haurrak bakarrik utzi behar izan dituzt eta ezin izan dute ikasketekin jarraitu. Emakume askok aita eta amaren papera hartzera behartuak ikusi dute euren burua une horretan, senarrak kartzelatuak izan direnean. Giza eskubideen urraketa bortitza suposatzen du honek.

Gu, herri indigenak garen heinean, ez gara existitzen Estatuarentzat, gure oinarritzko eskubideak erabat zapalduak daude. Soilik hauteskunde garaian nolabaiteko garrantzia dugula dirudi. Txandakako gobernuek haien nahietarako erabili izan digute beti baina, laguntza eskatu diegun bakoitzean, ez digute inolako jaramonik egin eta goian zerua eta behean lurra utzi izan gaituzte. “Bizitza defendatzen dugu gure lurraldea defendatzen dugu eta, batez ere, gure gorputz-lurraldea defendatzen dugu, dugun gauzarik garrantzitsuena delako”, hori azpimarratu izan dugu beti herri indigenok.

Orain 500 urte inbasioa eman zen gure lurraldean, oraindik ere mantendu egiten dena, alegia. 1996. urtean Bake Akordioak sinatu egin ziren bai, baina horrek ez digu inolako onurarik ekarri herri indigenoi. Oraindik inbasio hori jasotzen jarraitzen dugu, hainbate herrialdea edo enpresa handiak dira gaur egun konkistatzaileen papera jokatzan dutenak, guatemalarron lurra kaltetzera datozenak.

San Miguel Ixtahuacánen, 2005. urterako, 12 urte zeramatzan jada enpresa kanadarrak urrea aire zabalean ustiatzen. Horren ondorioz, Marlen meategiak kalte larri ugari eragin zituen. Komunitateko biztanleria erabat banatu egin zuen: batzuk alde eta beste asko meategiaren aurka jarri ziren. Azkenean, enpresak alkatetza bereganatzea lortu zuen eta ustiapen baimena eskuratu zuen. Aurka geundenok, aldiz, ezin izan genuen defentsa sendorik sortu. Bagenekien kalte psikologikoak, gaixotasunak eta arazo sozialak eragingo zituztela baina, hala eta guztiz ere, ezin izan genuen ezer gutxi egin.






Gaixotasun larriak agertu dira San Miguelen jada. Itxura txarreko beltzuneak agertu zaizkie askori, hiltzera ere eraman dituztenak zenbait kasutan. Baina noski, nola egin aurre minbiziari egunero arnasten dugun airea zianuroz beteta baldin badago? Arnasteari uztea litzateke irtenbidea, akaso? Gauza bera gertatzen da urarekin, lurra xurgatutako pozoia guztia errekarara doa eta, azkenean, gure etxe eta gure gorputzetara. Enpresako agintari guztiak haien etxeetan daude orain, aske eta osasuntsu, eta gu, aldiz, hemen gaude hiltzorian.


Alkoholismoa ere aipatzeko gaia dugu, 300 likore-denda baino gehiago daude gaur egun inguruan. Gazteria grina txarren eskutara bota du, droga-menpekotasuna eta prostituzioarekin batera. San Miguelen bizi den problematika hori oso larria da eta, gaur egun ere, ondorio horiek antzemangarriak dira biztanleengan. Meategiarekin batera garapena, hezkuntza hobea, formakuntza aurrerapenak... helduko ziren. Baina, zein izan zen benetan utzitzako ondarea? Soilik pobrezia latza, arazo sozialak, gaixotasunak, minbiziaz jota hildako emakume ugari, alkoholismoa, prostituzioa, droga-menpekotasuna... Gizartea izugarri kaltetu baino ez du egin, biztanleria errekaratu egin du.

Meataritzaren kontra borrokan izan diren herritarrak defendatzen eta babesten izan gara askotan ajchmol erakunde gisa. Tamalez, prestakuntza eta hezkuntza falta zela eta, askok borroka hori alde batera utzi zuten. Meatzaren aurka borrokan gaudenok ez dugu espaziorik jada; izan ere, pertsona talde konkretu batek bereganatu egin du bertako biztanleria osoa, eta gure jendea ere aurka jarri nahi dute. San Migueleko pertsonak bilatzen dituzte, proiektuaren aurka daudenak, eta hil egiten dituzte, espetxeratu, bortxatu... Bizitzaren aldeko apustu duina egin beharrean, erabateko sarraskiak egitera etortzen ari dira San Miguelera. Enpresa transnazional hauek sorrarazi duten gaitz larriaren bat biztanleriaren baitan sortu diren desadostasunak izan dira. Udalak enpresaren alde agertzen dira sarri eta ez dute biztanleen mesedetan lan egiten, Estatua bera ere jokoaren parte bilakatzen da, polizia makinak babesten dituen heinean esaterako.

Gu, erakunde gisa, burutzen ari garen lana pertsonak heztea da, ezer egin ezean gertatuko denaren inguruko hausnarketak bideratzea. San Miguel de Ixtahuacánen kasuan, enpresak ez zuen inoiz behar bezala azaldu proiektu horrek azalean alergía sorraraziko zuenik, ez zuten inoiz esan ur hori kutsatuta egongo zenik luzerako, ez zuten inoiz aipatu animaliak hil egingo zirenik, etxeak hondoratu edota etxeetako hormak pitzatu egingo zitezkeenik. Aitzitik, garapena suposatuko zuela aldarrikatzen zuten behin eta berriz, bizitza hobetuko zitzaigula, heziketa hobea jasoko genuela eta orokorrean dena hobetuko zela esaten ziguten. Ez zuten inoiz aipatu proiektuak alde negatiboak ere bazituela ezkutuan. Azken finean, jendea berriz engainatzeko modu bat izan zen.

Gure arbasoek bertan urrea existitzen zela jakin bazekiten, baina sakratua zela ere bazekiten, Ama Lurraren bihotza baitzen. Horregatik, guztiz ukiezina zen. Bihotz hori, urre hori, Ama Lurraren taupadak dira. Tamalez, beste herrialde batzuk etorri eta Guatemalako herria bereganatu izan dute historian zehar, gehienetan heziketa falta aprobetxatuz. Ikasgabeak deitzen gaituzte askotan, baina hau erabat faltsua da. Ezagutza propioa dugu, apartekoa eta izugarria dena. Gure aitona-amonak bakean bizi ziren, armoniatsu, ez zuten espero inork erasoko zituenik. Ez zeuden erasorako prest ezta su armen kontra egiteko ere. Hortaz, nire aldarrikapena honakoa da: aski da marjinazio horren menpean bizitzeaz, bazterpen horren pentzutan bizirauteari. Horregatik, zauri horiek itxi behar






ditugu behingoz, gurea denagatik tinko borrokatu behar dugu eta gure mundu-ikuskeran oinarrituta berriro ere altxatu.

Bertan, San Marcosen, urrea eta zilarra ere baditugu eta, ondorioz, 150 lizentzia baino gehiago ere agertu dira. Nazio mailan, meatzaritzarako 300 lizentzia baino gehiago zeuden eta San Marcos komunitatea zen horien gehiengoa biltzen zituena. Inbasioaren garaian, konkistatzaile espainolek sartalderantz baztertu zituzten herri indigenak, bazekitelako lur horiek guztiz idorrak zirela eta harri, haitz eta sakanez osatutako lurrak zirela. Elikagaiak ekoiztea ia ezinezkoa zen bertan. Hara mugiarazi gintuzten bitartean, haiek kostaldeko lurrak bereganatu zituzten, askoz emankorragoa zena. Orain dela 500 urte kokatu gintuzten hemen, indarrez, eta orain ohartu dira bertan urrea dagoela eta lurra ekoizkorra dela... Ez dute amorerik ematen eta berriz ere esplotatzen gaituzte, berriz ere hartzen dituzte gure espazioak indarrez. Horregatik, guk, erakunde gisa, dokumentuak bildu eta salaketak bideratzen ditugu, guzti hau bertan eman ez dadin. Lan horri esker, soilik San Miguel Ixtahuacanen eman dira ustiaketak gaur egunera arte. Gure bezalako erakundeak ez baleude, guztiz konbentzitututa nago gure inguruan bertakoa bezalako meatzaritza ustiapen ugari egongo zirela abian jada.

Erakunde hauei esker, eta OITren 169 Hitzarmenean babestuta ere, azkenean komunitateetan galdeketak egitea lortu da. Herri indigenentzat ezinbesteko tresna bilakatu da hau bizitzaren defentsa prozesuetan. Izan ere, 169 Hitzarmen hura, munduko hainbat gobernuak sinatu eta onartu egin dute. Orduan, zergatik ez erabili gure bizitzak ere defendatzeko? Honen adibide argia Comitancillo dugu, herri kontsulta burutu zuen lehendabiziko udalerrria, eta meategia ustiapena bertan behera geldiaraztea lortu zuena, hain zuzen. Herri eta erakunde gisa erabaki genuen adi-adi egon beharko ginela eta gure lurrak ezezagunak diren atzeritarrei ezin izango genizkiela saldu, bertan enpresen sarrerak ekiditeko helburuz.

Honen aurrean, gure erronka emakume, ama edota herritar gisa, proiektu guzti hauek ezkutuan dakartena ozen eta argi plazaratzea da, jendeari proiektu hauek kaltetu baino ez digutela egingo azaltzea, lagun eta familia osoak erdibitu baino ez dituztela egingo. Guatemalan bizi dugun muturreko pobrezia egoeraz aprobe txatu egiten dira, horregatik, dirua erabiltzen dute giltzarri gisa jendea erakartzeko. Barne zein kanpo migrazio ugari ditugu, eta emakume asko hilak izan dira horren ondorioz, baita haur asko laga ere, guraso asko eta asko atzerrira joan behar izan baitira lan eske.

Guatemalak baliabide natural ugari dituen lurraldea dela badakigu, baina hauek inoiz ez direla herritarren onurarako erabiltzen ere jakin badakigu. Hori ez dute inoiz kontuan hartzen. Aitzitik, kontsumismo bortitza sustatzen ari dira, gure familien osasuna kaltetu egiten duten produktuak. Egia esanda, Guatemalan inor ez da gure osasunaz kezkatzen. Esate baterako, emaginak, erditzen laguntzeaz arduratzen diren emakumeak alegia, auzipetzen hasiak dira. Herrialde asko gure ehunak eta janzerak kopiatzen dituzten bitartean, gure herrialdeak ez ditu batere baloratzen eta ez digu inolako babesik eskaintzen... Gure ezagutzen bidegabeko jabetze argia suposatzen du horrek. Guretzat oso mingarria da enpresa transnazional hauek gure ehunen izaera hori bereganatzea, lapurtzea, bertako propio diren jantziak dira azken finean. Bizitzaren kontrako eraso guzti hauek salatzen ditugu behin eta berriz. Maya herriari min izugarria eragin diote eskualdean bertan, baita tokian-tokiko zein nazio mailan ere. Baina ez soilik gure herriari, Abya Yalako beste zenbait eta





zenbait herriei ere, gure antzera atzerriko herrialdeetatik etorritako heriotzak jasan dituztenak.


Guatemala herrialde multietnikoa da, eleaniztuna, kulturantzuna eta plurinazionala. Lau herri bizi gara elkarrekin: garifunak, xinkak, ladinoak eta herri mayak. Ez dugu itxaropena galtzen herri originario gisa. Duela 500 urte baino gehiago inbaditu gintuzten, eta agian 500 urte gehiago igaro beharko dira, baina ez dugu inolaz ere amorerik emango. Ziur aski, mundu mailan, beste askok pairatzen dituzte gizarte-arazo horiek ere, eta ziur asko ere, ez dute borrokarako itxaropenik galtzen. Ez dute nortasun ezta sentimendu hori galtzen. Batu ditzagun gure indarrak.


Nire ustez, herri indigenak garen heinean, dugun bizitza ulertzeko eta antolatzeko modu propio horri bizia emateko unea heldu da, horrek bakarrik lagun gaitzake. Eta, une honetan, beste herrialde batzuetako anai-arrebei ere eskatzen diet oinaze hau berea egin dezaten. Horren beharra dago, beraz, nahitaezkoa da denok elkartzea, ez bakarrik herri indigenak, baita herrialde osoak ere. Mexiko, Guatemala, El Salvador edota Hego Amerika bera ere kaltetuak izaten ari dira. Indarrak batzea da geratzen zaigun bide bakarra.

Ama Lurra mugiarazten hasia da jada, bizirik dagoelako mugitzen da. Erantzuteko beharra du, jada ez du gehiagorik jasaten, horregatik ernatzen hasi da. “Zure beharra dut, anai-arreba; altxa hadi, entzun nazazu negarrez; oso gaixorik nago”. Hori da bere deia, hiltzorian. Hala ere, guk ez dugu hori antzematen, guk soilik mugitzen ari dela nabaritzen dugu gure barnean. Gaur egun, adibidez, asko ezin dira eguzkitan egon, erre egiten dituztelako. Zientzialariek behin eta berriz errepikatzen ari dira mundua kolapsatzear dagoela, goseteak berriro areagotuko direla, egarriak, heriotzak... Gu geu gara bizi-eredu honen errudunak, guk sortu dugu, eta gure buruak heriotzarantz eramaten ari gara zuzenean. Eta horretaz ohartzen ez garela ematen du. Zenbat egun, urte, minutu, segundo igaro behar dira behar bezala horri aurre egiteko? Auskalo.

Guatemalako herri indigenak horretaz ohartzen hasiak gara behintzat eta, zorionez, gure indarrak batzen hasi gara. Gure Popol Vuh liburu sakratuak hala dio: “Batu zaitezte, hitz egin, eztabaidatu, sortu, eraiki... altxatu eta ez dadila inor atzean geratu”. Ez dugu inolako bazterketarik egiten, gure nahia amankomunean bizitzea da, bertako lau herriak elkarrekin harmoniatsu bizitzea, munduko herri guztiekin alegia. Nahiz eta gure artean ezberdintasunak egon, besteen arazo sozialak gureak ere badira, Ama Lur beraren parte baikara denok. Gurea dena kentzera etor ez daitezen indarrak batzea ezinbestekoa da, Guatemalako herriek hainbeste kontsumitzen dugu artoaren inguruan batzen garen antzera.

Planteamendu horiek berreskuratu behar ditugu berriro ere, hori baita ahaztu duguna. Egun, Ama Lurrarekin genuen harremana galdu egin dugu eta, horren ordez, tramankulu teknologiko zatar horiek zeharo harrapatu gaituzte. Euri azpian ibiltzea ahaztu zaigula dirudi. Hori baita bizitza. Jomuga berri hori aurkitu behar dugu, eguzkiaren izpi berri horiek alegia, biharko eguna loratuko dutenak. Guatemala hori ikusi behar dugu, Erdialdeko Amerika hura, Europako hainbat herrialde, iparraldekoak zein hegoaldekoak. Azkenean topo egin behar dugu, arazoez elkartu egin behar gaituztelako.





Heziketa horretan oinarritu behar gara, bizimodu orekatsu eta amankomun horren aitzindariak bilakatu behar gara, hori lortzea baita azken finean gure helburu nagusia. Zuek zarete zehazki belaunaldi hori, gogamena eraldatzeko gaitasuna baituzue. Gure iritziak ere eraldatu behar ditugu. Kolonizatu egin gintuzten eta gure sinismenak, ohiturak eta ezagutzak zapaldu zituzten. Gaur egun nire herriko jantziak erabiltzen ditut oso harro baina, hala ere, oraindik asko dut deskolonizatzeke. Nire burua deskolonizatu behar dut ondoren nire sustraiekin bat egiteko.